
Bi egarri-motak desberdin kudeatzen ditu garunak



ARG.: Pixabay.

Ugaztunentzat, likidoak edatea berezko portaera da, baina bi egarri-mota ase behar izaten dituzte: bata, egarri osmotikoa da, odoleko gatz mineralen kontzentrazio handiak eragiten duena, eta ur hutsa edanda asetzen dena; bestea, egarri hipobolemi-koa, gorputzeko likidoak galtzeak sortzen duena, eta ura eta mineralak edanda bakarrik asetzen dena. [Nature aldizkarian argitaratutako ikerketa batek](#) argitu berri du bi egarri-motek oinarri zelular desberdina dutela. Are gehiago, garunean neurona-mota desberdinak inplikatzeko dituela.

Orain arte, bazekiten gorputzeko sistema sentso-rial periferikoek, hala nola dastamenak eta usaime-nak, estimulu ugari hauteman ditzaketela zelula-mota bakarraren bidez. Modu berean, garunean egarria detektatzeko dauden organo sentso-rialek ere egarria eragiten duten bi estimuluak hauteman ditzakete, barne-likidoen estres osmotikoa zein hipobolemikoa. Baina, erantzun desberdina eskatzen dutenez, badirudi garunak hainbat bide neuronal garatu behar izan dituela organismoak dago-kion moduan ase dezan beharra. ●

Fukushimako istripuko erradioisotopoen migrazioa

Japoniako gobernuak Fukushimako tona bat ur erradioaktibo ozeanora jaurtiko duela iragarri eta egun gutxira, *Nature Reviews Earth & Environment* aldizkariak [istripuan zabalduko erradioisotopoen migrazio-datuak](#) erakutsi ditu.

Istripuak 520 PBq erradioisotopo askatu zituen atmosferara eta ozeanora. Ozeanora askatutakoa uretan barreiatuta geratu zen, eta atmosfera igorritakoa euri erradioaktibo gisa zabaldu zen eskualdean: % 67 basoetan, % 10 arroz-soroetan, % 7 bestelako nekazaritza-lur eta larreetan, eta % 5 herriguneetan.



ARG.: Wikimedia.

Basoetan, hosto eta adarretan pilatu ziren erradioisotopoak, baina, gerora, zuhaitzaren biomasa osoan finkatzen joan dira, eta lurrera iritsi. Ibaiak eta lur azpiko urak kutsatzeko iturri garrantzitsua dira. Nekazaritza-lurretan, ordea, lurraren porositateak, pH-ak eta beste zenbait faktorek baldintzatu dute zer sakonerataraino iritsi diren erradioisotopoak. Arroz-soroen kasuan, istripuaren unean ez zeuden ureztatuta, eta lurraren azalean mantendu zen kutsadura. Baina, urez estaltzen diren garaian, isotopo erradioaktiboen beheranzko migrazioa oso azkarra eta sakona izan da. Ekosistemenean arabe-rako migrazio-datuok etorkizunean aintzat hartzeko eskatu dute, CO₂-igorpena murrizteko lehia dela eta, gero eta errektore nuklear gehiago eraikitzea eragiten ari baita Asian. ●